

DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN

GIZA ESKUBIDEEN
VII. ZINEMALDIA

**VII FESTIVAL DE CINE
Y DERECHOS HUMANOS**

APIRILAREN 23TIK 30ERA
DEL 23 AL 30 DE ABRIL
2009



VICTORIA EUGENIA

Antzokian





ZINEMA
CINE



MUŞIKA
MÚSICA



ERAKUSKETAK
EXPOSICIONES



MAHAI - INGURUA
MESA REDONDA



osteguna / jueves
apirilak 23 abril

19:30 **INAUGURAZIOA / INAUGURACIÓN**
El nunca lo haría
FIFTY DEAD MEN WALKING

23:00 **Love**
TULPAN

ostirala / viernes
apirilak 24 abril

19:30 **LA CAJA DE PANDORA**

23:00 **ANDER**

larunbata / sábado
apirilak 25 abril

17:00 **Rough Cut**
WHERE IN THE WORLD IS OSAMA BIN LADEN?

19:30 **Carretera del norte**
EL OLVIDO

23:00 **Andong**
AFTER THE RAPE

igandea / domingo
apirilak 26 abril

17:00 **Au centre de la terre. Des puits et des hommes**
MY MAGIC

19:30 **On the Line**
LA FORTERESSE

23:00 **Cemetery People**
OASIS

astelehena / lunes
apirilak 27 abril

19:30 **Asämara**
JOHNNY MAD DOG

23:00 **Clean Up**
SICKO

asteartea / martes
apirilak 28 abril

19:30 **TEZA**

23:00 **La Patrona**
A LAS PUERTAS DE PARÍS

asteazkena / miércoles

apirilak 29 abril 18:00 **MAHAI-INGURUA / MESA REDONDA**
KLUB ARETOA / SALA CLUB
(SARRERA DOAN / ENTRADA LIBRE)
ZINEA BABES GISA / EL CINE COMO ESCUDO

19:30 **Skhizein**
TROUBLE THE WATER

23:00 **Mona**
MOTEMA NA NGAI

osteguna / jueves

apirilak 30 abril 17:00 **Y EL CINE MARCHA. UNA HISTORIA**
DEL CINE AL SERVICIO DE
LOS DERECHOS HUMANOS

19:30 **BUKAERA / CLAUSURA**
CHECKPOINT ROCK. CANCIONES
DESDE PALESTINA

MUSIKA / MÚSICA
REVOLUTIONARY BROTHERS

22:30 **MUSIKA / MÚSICA**
GAZTESZENA (C.C. EGIA K.E.)
CHECKPOINT ROCK ZUZENEAN

Sarrera / Entrada: 3,70 €


Abonoa (film emanaldi guztiak eta katalogoa barne)

Abono para todas las sesiones cinematográficas (incluye catálogo): 18 €

Checkpoint Rock Zuzenean: 10 €

Film guztiak jatorrizko bertsioan emango dira, gaztelaniaz azpidatzita, salbu CEMETERY PEOPLE eta OASIS, euskaraz azpidatziak.

Todas las películas se proyectarán en versión original subtitulada en español excepto CEMETERY PEOPLE y OASIS, que se subtitularán en euskera.




ZINEMA
CINE



osteguna / jueves
apirilak 23 abril

• 19:30

INAUGURAZIOA / INAUGURACIÓN



Él nunca lo haría (2009). Anartz Zuazua. Espainia. 14 min.

Haurrek beti eskatu ohi dizkiete gauza zailak Errege Magoei. Joan den urtean poney bat nahi zuen Laurak. Eta aitona bat eskatu du aurten.

Los niños siempre piden cosas difíciles a los Reyes Magos. El año pasado Laura quería un poni. Este año ha pedido un abuelo.



Terrorismoaren aurka, batasuna La unidad contra el terrorismo



FIFTY DEAD MEN WALKING (2008). Kari Skogland. Erresuma Batua-Kanada. 117 min.

Laurogeiko urteetan, irlandar gatazkaren garai odoltsuenean, polizia britainiarrak Martin McGartland gaztea erreklutatu zuen IRAn infiltratzeko. Une horretatik aurrera bere bizitza arriskuan egongo da une oro. Bere lana oso arriskutsua izan arren eta eguneroko bizitza latza egiten bazaio ere, lan hori betetzen jarraitzen du ematen duen informazioa bizitzak salbatzeko balio duelako. Martin McGarlandek idatzitako liburu autobiografikoan oinarritutako pelikula.

En los años ochenta, cuando el conflicto irlandés estaba en su época más sangrienta, el joven Martin McGartland fue reclutado por la policía británica para infiltrarse en el IRA. Desde ese momento su vida comienza a estar en juego a cada minuto. Pese a los riesgos que conlleva su trabajo y a lo difícil de su día a día, sigue haciéndolo porque la información que suministra sirve para salvar vidas. Película basada en el libro autobiográfico escrito por Martin McGarland en el que cuenta su historia.



TERRO-
RISMOA
ETA
BIKTIMAK



• 23:00



Love (2008). Cristian Solimeno. Erresuma Batua. 15 min.

Lovek Ernesti jarraitzen dio bere ama Angelari haren bizitzari azkena ematen laguntzen ari zaion bitartean. Oroipen goxoak eta garratzak etorriko zaizkie gogora momentu hori iritsi artean.



Love sigue a Ernest mientras ayuda a su mujer, Angela, a acabar con su vida. Recuerdos dulces y amargos les acompañan hasta llegar a ese momento.

Beste bizimodu batzuk: nomadak
Otros modos de vida: nómadas



TULPAN (2008). Sergey Dvortsevov. Alemania-Suitza-Rusia-Polonia-Kazakhstan. 100 min.

Errusiako armadan soldadutza amaitu eta gero Asa gaztea bere sorlekura itzuli da, Kazakhstango estepetara, senarrarekin eta seme-alabekin arreba bizi den etxera. Lekuan egin daitekeen lanbide bakarrean dihardute haiek, artzaintzan, hain zuzen ere. Asak bere kontura bizitzen jarri, bere ardiak erosi eta familia bat osatu nahi du. Gauza bat falta zaio, ordea: emakume bat.



Tras finalizar su servicio militar en la Armada rusa, el joven Asa vuelve a su tierra, en las estepas de Kazajstán, a la casa donde vive su hermana con su marido y sus hijos, dedicados al pastoreo de ovejas, la única ocupación posible en ese lugar. Asa quiere establecerse por su cuenta, comprar sus propias ovejas y crear una familia. Pero le falta una cosa: una mujer.



**ostirala / viernes
apirilak 24 abril**

• 19:30

***Gaixotasuna, mendekotasuna eta familian
duten eragina / Enfermedad, dependencia
e incidencia en la familia***



LA CAJA DE PANDORA

(Pandora'nin kutusu / Pandora's Box, 2008).

Yeşim Ustaoglu. Turkia-Frantzia-Alemania-Belgika.
112 min.

Istanbulen bizi diren bi anaiak eta arreba batek oso bizimodu desberdinak daramatzate, elkarrengandik urrundu dituztenak. Egun batean dei bat jasoko dute jakinaraziz ama bere jaioterritik desagertu dela, Itsaso Beltzaren inguruko mendialdean dagoen eta bakarrik bizi den herri txiki batetik. Hiruak batera irten dira amaren bila.



Dos hermanos y una hermana residentes en Estambul llevan vidas muy diferentes, bastante separados entre sí. Un día reciben una llamada avisándoles de la desaparición de su madre en su pueblo natal, una pequeña localidad situada en las montañas cercanas al Mar Negro donde vivía sola. Parten en su busca los tres juntos.



• 23:00

Homosexualitatea eta gizartearen onespena
Homosexualidad y aceptación social



ANDER (2008). Roberto Castón. Espainia. 128 min.

Ander, berrogei bat urteko baserritarra, gorabehera handirik gabeko bizimodua darama: bizikleta fabrika bateko langilea da eta fabrikatik kanpo baserriko lanetan aritzen da. Bertan, amarekin eta arrebarekin bizi da. Egun batean istripu bat izango du eta hanka hautsiko zaio. Orduan, amaren borondatearen kontra, baserriko lanak egiteko etorkin perutar bat, José, kontratatzea erabakiko du familiak. José euren bizitzan sartzen denean aldatu egingo da Anderren bizitza, zituenik ere ez zekien sentimenduak pizten hasiko baitzaizkio, eta horrek gatazka handia sorraraziko dio bere barruan.

Ander, un casero cuarentón, lleva una vida rutinaria, entre su trabajo como operario en una fábrica de bicicletas y las labores del caserío, donde vive con su madre y su hermana. Un día tiene un accidente y se rompe una pierna. Pese a la oposición de la madre, la familia decide contratar a un inmigrante peruano, José, para realizar las tareas del caserío. La llegada de José modifica la vida de Ander, ya que empiezan a surgirle sentimientos que no sabía que tenía, provocándole un fuerte conflicto interior.





• **17:00**



Rough Cut (2008). Firouzeh Khosrovani. Iran. 22 min.

Teheraneko arropa-dendetako erakusleihoek bertatik dabilzanak erakartzen dituzte, erakusten diren jantzien aurrean gelditzen baitira. Begiradak gurutzatzen dituzte ikusgai jarritako maniki groteskoekin, emakumezkoaren irudiaren erreprodukzio kezagarriak direlarik: zerbait falta zaien gorputzak, femeninotasunaren edozein aztarna ezkutatzea helburu izanik.

Los escaparates de las tiendas de ropa de Teherán atraen el interés de los paseantes, que se paran ante las vestimentas expuestas. Cruzan miradas con los maniqués grotescos, reproducciones perturbadoras de la figura de la mujer, cuerpos mutilados en busca de ocultar cualquier atisbo de feminidad.

Terrorismoa eta segurtasun falta Terrorismo e inseguridad



WHERE IN THE WORLD IS OSAMA BIN LADEN?
(2008). Morgan Spurlock. Estatu Batuak. 93 min.

Morgan Spurlockek zerbait ikasi badu 30 urte pelikulak ikusten eman ondoren, hauxe da, mundua salbatzeko garaian hobe dela gizaki bakar bat, ekintza zineko heroien estilora. Hala, inolako esperientzia militarrik gabe, berriazko prestakuntzarik edo entrenamendurik gabe, CIA, FBI eta mundu osoko zerbitzu sekretuak lortzeko gai izan ez direna egiten saiatzea erabaki du Spurlockek: munduko gizonik jazarriena aurkitzea.

TERRO-
RISMOA
ETA
BIKTIMAK

Si Morgan Spurlock ha aprendido algo después de 30 años viendo películas es que a la hora de salvar el mundo es mejor un hombre solo, al estilo de los héroes de acción. Así que sin ninguna experiencia militar, preparación específica o entrenamiento, Spurlock decide intentar lo que la CIA, el FBI y los servicios secretos de todo el mundo han sido incapaces de conseguir: encontrar al hombre más buscado del mundo.



• 19:30



LATINO-
AMERIKA

Carretera del norte (2008). Rubén Rojo Aura.
Mexiko. 10 min.

Mexikoko iparraldeko errepide mortu batean, familia bat erabateko pobrezia-ri egiten ari zaio aurre bertatik pasatzen diren auto-gidariei animaliak saltzen. Egoera jasanezin horrek bultzatuta erabaki bat hartuko du amak, bere bizitza betiko aldatuko duena.

En una carretera desértica del norte de México, una familia sobrevive a la pobreza extrema vendiendo animales a los automovilistas que van de paso. La insoportable situación hace que la madre tome una decisión que cambiará su vida para siempre.

Ustelkeria politikoa, zigorgabetasuna eta memoria historikoa / Corrupción política, impunidad y memoria histórica



LATINO-
AMERIKA

EL OLVIDO (2008). Heddy Honigmann.
Holanda-Alemania. 93 min.

El olvido filmak Limako hiriaz, bertako jendeaz (peruarrak) eta azken finean ahanzturan utzi dugun Peruko herrialdeaz (Latinoamerikako herrialde gehienak bezala) hitz egiten digu. Noizean behin –lehendakaritzarako hauteskundeetan, lurrikara baten ondoren edo gorpuez betetako hilobi bat aurkitzen denean– orduan ohartarazten da mundua, egun gutxi batzuetan ordea, Peru existitzen dela.

El olvido habla de la ciudad olvidada de Lima, de un pueblo olvidado (los peruanos) y de un país olvidado (como la mayor parte de los países de América Latina), Perú. De vez en cuando –durante unas elecciones presidenciales, después de un terremoto o cuando se descubre una fosa llena de cadáveres–, el mundo se acuerda de la existencia de Perú, pero sólo por unos días.



larunbata / sábado
apirilak 25 abril

COBOS FILMS

PRESENTS

After the Rape

A ONE WOMAN REVOLUTION IN PAKISTAN



directed by CATHERINE ULMER, camera & music PEDRO JIMENEZ, sound XANTI SALVADOR, editor DANNIEL DANNIEL
sound designer HAROLD JALVING, associate producer JUDITH VRERIKS, produced by CARMEN COBOS



• 23:00



Andong (2008). Rommel Tolentino. Filipinak.
20 min.

Sei urteko haur baten obsesioari, famili dinamikei eta eginahalak eginez irabazitako hogeai pisuren balio errealari buruzko istorioa.

Una historia sobre la obsesión de un niño de seis años, dinámicas familiares y el valor real de veinte pesos duramente ganados.

Heziketa eta emakumeen aurkako indarkeria ***Educación y violencia contra las mujeres***



AFTER THE RAPE (2008). Catherine Ulmer. Holanda.
73 min.

Emakume bakar batek Pakistanen aurrera eramandako iraultza. Bortxatua izan ondoren, gerta zitekeen bere bizitza osorako lotsatuta egotea edo bere buruaz beste egitea. Baina, horren orde, Mukhtaran Maik neskentzako eskola bat zabaltzea erabaki zuen. Punjabeko herrixka urrun bateko emakume hau konturatu egin zen mentalitatez aldatzearekin bakarrik lor daitekeela tradizio zaharkitu eta bortitz batzuei jarraitzeari uztea.

Una revolución de una sola mujer en Pakistán. Después de haber sido violada, podría haber vivido avergonzada el resto de su vida o haberse suicidado. Pero, en cambio, Mukhtaran Mai decidió abrir una escuela para niñas. Esta mujer de una aldea remota del Punjab se dio cuenta de que sólo un cambio de mentalidad podría acabar con algunas brutales tradiciones arcaicas.





**igandea / domingo
apirilak 26 abril**

• 17:00



Au centre de la terre. Des puits et des hommes (2008). Ingrid Patetta. Niger. 25 min.

Nigerko hausas putzuzainen lanaren historia. Film labur honek omenaldi egiten die ura aurkitzeraino esku hutsik lurra zulatzen aritzen direnen harrotasunari, tradizioari eta betebeharrari.

AFRIKA

Historia del trabajo de los poceros hausas de Níger. El corto rinde homenaje al orgullo, la tradición y el sentido del deber de los que cavan el suelo con sus manos desnudas para llegar al agua.

Haurren eskubideak / Derechos de la infancia



MY MAGIC (2008). Eric Khoo. Singapur. 75 min.

Emazteak utzi zuenetik desastre hutsa da Francisen bizitza. Edanari eman dio gaueko klub batean lan eginez bizimodua ateratzen ari den bitartean. Hamar urteko seme bat du, bihotzez maite duena, baina nahigabeak, erruak eta alkoholak ez diote uzten maitasun hori umeari erakusten. Semea galtzeko zorian dagoenean, bere burua semearekin duen harremana salbatzea erabakiko du lehen izan zuen lanbidera, magiara, bueltatuz.

Desde que su mujer le dejó, la vida de Francis es un desastre. Ahoga sus penas en alcohol mientras sobrevive trabajando en un club nocturno. Tiene un hijo de diez años al que ama, pero la pena, la culpa y el alcohol no le permiten demostrárselo. Cuando está a punto de perderlo definitivamente, decide intentar salvarse y salvar su relación con él volviendo a su antigua profesión: la magia.



• 19:30



On the Line (2008). Jon Garaño. Espainia. 12 min.

Edozein larunbata, Kaliforniako hegoadean. Adamek, klase ertain/baxuko iparramerikarrak, agur esan die emazteari eta seme-alabei bere asteroko zeregina betetzera doanean...

Un sábado cualquiera en el sur de California. Adam, un norteamericano de clase media-baja, se despidе de su mujer e hijos para acometer su tarea semanal...



LATINO-AMERIKA

Asilo eskubidea / Derecho de asilo



LA FORTERESSE (2008). Fernand Melgar. Suitza. 100 min.

Lehen aldiz kamera bat inolako mugarik ezarri gabe sartu da Suitzan asiloa eskatu duten pertsonentzako harrera zentro batean. Beldurraren eta itxaropenaren artean, berrehun gizon, emakume eta haur bertan bizi dira agintariak haien eskaerari erantzun eta zerbait erabakiko dutelakoan, batzutan enpatia eta beste batzutan mesfidantza sumatzen den giroan bertako langileekin batera bizi diren bitartean.

Por primera vez una cámara entra sin ningún tipo de restricciones en el universo de un centro de acogida para personas que han solicitado asilo en Suiza. Entre el temor y la esperanza, doscientos hombres, mujeres y niños viven allí a la espera de que las autoridades decidan sobre su demanda, mientras conviven con los trabajadores del lugar en una atmósfera por momentos de empatía y en otros de desconfianza.





igandea / domingo
apirilak 26 abril





• 23:00



Cemetery People (2008). Alessandro Molatore. Irlanda-Filipinak. 4 min.

6.000 pertsona baino gehiago bizi dira Navotasko hilerrian, Manilako badian. Gizonek, emakumeek eta haurrek, familia osoek, urteak daramatzate hilobi artean jaten, lotan, jolasean...



Más de 6.000 personas viven en el cementerio de Navotas, situado en la bahía de Manila. Hombres, mujeres y niños, familias enteras, llevan años entre las tumbas, donde comen, duermen, juegan...

Urritasunak dituzten pertsonen eskubideak ***Derechos de las personas discapacitadas***



OASIS (2002). Lee Chang-dong. Hego Korea. 132 min.

Jong-du, ezintasun psikiko arina duen gizona, kartzelatik atera berri da ustekabeko auto istripu batengatik ezarri zioten zigorra bete ondoren. Egun batean, istripuan hil zen gizonaren familia bisitatu eta haren alaba, Gong-ju, ezagutuko du: garun perlesia du hark eta anaiarengandik ia erabat abandonatuta bizi da apartamentu ziztrin batean.

Jong-du, un hombre con una leve discapacidad psíquica, sale de la cárcel después de cumplir condena por un atropello accidental. Un día decide hacer una visita a la familia del hombre muerto en el accidente, y conoce a su hija, Gong-ju, que sufre parálisis cerebral y que vive prácticamente abandonada por su hermano en un miserable apartamento.



• 19:30



Asämara (2008). Jon Garaño, Raúl López. Espainia. 9 min.

Asämara: "Lan egitera bidalitakoak", "ogibidea lortzera bidalitakoak". Horixe da errealitatea, oso gazte izan arren, milioika haurrek gaur egun Afrikan aurre egin behar izaten dioten errealitatea. Hirian edo landa-eremuetan borroka bera: bizirautea.



AFRIKA

Asämara: "Mandados a trabajar", "mandados a buscarse la vida". Esa es la realidad que, a pesar de su extrema juventud, millones de niños deben afrontar en la África de nuestros días. En la ciudad o en las zonas rurales su lucha es la misma: la supervivencia.

Haur soldaduak eta haiek berriro gizarteratzea **Niños y niñas soldado y su reintegración en la sociedad**



JOHNNY MAD DOG (2008). Jean-Stéphane Sauvaire. Frantzia-Liberia-Belgika. 93 min.

Johnny haur soldadu bat da, ametsetan duen "zakur eroak" (*mad dog*) menderatutakoa. Beste hiru neraberekin batera osatu duen armada laburrarekin, bidean topatzen dituen guztiak erasotzea, lapurtzea eta hiltzea da bere zeregina. Laokolé 13 urteko neska bat da. Bere anaia txikiarekin bizi den hiritik ihes egin nahian dabil, haur soldaduen miliziak okupatzen ari diren hiritik alegia.



AFRIKA

Johnny es un niño soldado poseído por el "perro loco" (*mad dog*) con el que sueña. Con su pequeño ejército, formado por otros tres adolescentes, se dedica a asaltar, robar y asesinar todo lo que se encuentra en su camino. Laokolé es una niña de 13 años. Trata de escapar con su hermano pequeño de la ciudad donde vive, que está siendo ocupada por milicias de niños soldado. Johnny avanza. Laokolé huye.



• 23:00



Clean Up (2008). Sebastian Mez. Alemania. 9 min.

Gela berezi hau garbitzea da bere ogibidea. Estatu Batuetako kartzela bateko exekuzio gela, alegia. Erabiltzen den bakoitzean, lehen zegoen bezala utzi behar du berak.

Su trabajo consiste en limpiar esta habitación especial. Una sala de ejecuciones de una prisión de Estados Unidos. Cada vez que se utiliza, él debe dejarla como antes.

Osasun publikoa unibertsal izateko eskubidea **Derecho a la sanidad pública universal**



SiCKO (2007). Michael Moore. Estatu Batuak. 96 min.

“Osasun laguntza” eta “komedia” terminoak ez dira normalean agertzen esaldi berean, baina Michael Mooreren –**Bowling for Columbine** (2002), **Fahrenheit 9/11** (2004)– film berri honetan... (gomazko) guantearekin eskutik helduta agertzen dira.

Las expresiones “asistencia sanitaria” y “comedia” no suelen aparecer en la misma frase, pero en la nueva película de Michael Moore –**Bowling for Columbine** (2002), **Fahrenheit 9/11** (2004)– van juntas de la mano... con guante (de goma).



asteartea / martes
apirilak 28 abril

• 19:30

Afrika eta talentuen ihesa
África y la fuga de talentos



TEZA (2008). Hailè Gerima. Etiopia-Alemania-Frantzia. 140 min.

Etiopian jaio zen herrira itzuli da Anberber, urte askotan Alemanian medikuntza ikasten aritu ondoren. Afrikara itzuli diren askok bezala, bere ezagutza guztiak erabili nahi ditu herrikideei laguntzeko. Herrialdea krisialdian ikusiko du ordea, amaitzen ez den gerra batean murgilduta, eta erreklutatu ez ditzaizen herriko gazte guztiak mendialdean ezkutatuzera behartzen ditu egoera horrek.



AFRIKA

Anberber vuelve a su pueblo natal, en Etiopía, tras muchos años estudiando medicina en Alemania. Como muchos otros retornados a África, piensa usar todos sus conocimientos para ayudar a su pueblo. Pero una vez allí se encuentra con un país en crisis, inmerso en una guerra permanente que obliga a todos los jóvenes del pueblo a esconderse en las montañas para no ser reclutados.



• 23:00

La Patrona (2009). Lizzette Argüello. Mexiko.
5 min.



LATINO-
AMERIKA

La Patrona Veracruzko migrazio pasabidean dagoen komunitate txiki bat da eta bertan emakume talde bat biltzen da egunero gizakiaren aldeko manifestaldi batean. "Las Patronas" emakume hauek aparteko esperientzia bizi ohi dute egunero.

La Patrona, una pequeña comunidad localizada en el pasillo migratorio de Veracruz donde diariamente un grupo de mujeres se manifiesta a favor del ser humano. "Las Patronas" viven una experiencia extraordinaria cada día.

Emigrazioa / Inmigrazioa
Emigración / Inmigración

A LAS PUERTAS DE PARÍS (2008). Joxean Fernández, Marta Horno. Espainia. 44 min.



60ko urteen amaieran 600.000 espainol baino gehiago bizi ziren Frantzia. Izan ere, herrialde horretako etorkinen komunitate handiena osatzen zuten. Ia erdia emakumeak ziren, Espainiako leku desberdinetatik etorriak. Haietako asko atezain lanean aritzen ziren Parisen, eta oraindik ere lan horretan jarraitzen dute batzuek, eta beste batzuk Espainiara itzuli dira edo erretiratzen direnean itzultzeko asmoa dute.

A finales de los años 60 más de 600.000 españoles vivían en Francia. Constituían la comunidad de migrantes más importante del país. Casi la mitad eran mujeres llegadas de diferentes puntos de España. Muchas de ellas trabajaron como porteras en París, algunas siguen haciéndolo todavía hoy y otras han vuelto a España o piensan hacerlo cuando se jubilen.



asteazkena / miércoles
apirilak 29 abril

• 19:30



Skhizein (2008). Jérémy Clapin. Frantzia. 13 min.

Zer gertatzen da 150.000 tonako meteorito batek kolpe egiten dizunean? Horixe gertatu berri zaio Henriri. Ordutik aurrera bere burutik 91 cm-ra bizi da. Eskizofreniaren munduari zuzendutako begirada pertsonala.



¿Qué sucede cuando te golpea un meteorito de 150.000 toneladas? A Henri le acaba de pasar. Desde entonces vive a 91 cm de sí mismo. Una personal mirada al mundo de la esquizofrenia.

Hondamendi naturalak eta gizakion ezgaitasuna
Desastres naturales e incompetencia humana



TROUBLE THE WATER (2008). Tia Lessin, Carl Deal. Estatu Batuak. 96 min.

Tia Lessinek eta Carl Dealek **-Fahrenheit 9/11** (2004) filmaren ekoizleak- zuzendua eta ekoiztua, **Trouble the Water** orain arte inoiz ikusi ez dugun bezala hurbiltzen da Katrina urakanaren hondamendira. Hurakana New Orleansera iritsi aurreko egunean, Kimberly Roberts rap abeslari afizionatuak bere bideo-kamera berria probatuko du bizilagun batzuk filmatzeko. Zeruak belztu egiten da tarteka. *"Gogoratzeko egun bat izango da hau"*, dio Kimberly.

Dirigido y producido por Tia Lessin y Carl Deal –productores de **Fahrenheit 9/11** (2004)–, **Trouble the Water** se acerca al desastre del Katrina de una forma nunca vista hasta entonces. El día antes de que llegue el huracán a Nueva Orleans, la cantante de rap aficionada Kimberly Roberts prueba su nueva cámara de video grabando a unos vecinos. El cielo se ennegrece por momentos. *"Va a ser un día para recordar"*, dice Kimberly.



• 23:00



Mona (2008). Agnes Rossa. Egipto-Alemania.
29 min.

Mona bost metro koadroko apartamentu batean bizi da Kairon, bere lau alabekin: Maria, Marcell, Monika eta Morgina. Senarra hil ondoren haiek mantentzeko, tokiko hondakindegian zaborra sailkatzen ari da lanean. Neskak egunero doaz eskolara. Monak haien bizimodua hobea izatea du amets.

Mona vive en un apartamento de cinco metros cuadrados en El Cairo con sus cuatro hijas: Maria, Marcell, Monika y Morgina. Para mantenerlas tras la muerte de su marido, trabaja clasificando basura en el vertedero local. Las niñas van cada día a la escuela. Mona sueña con que tengan una vida mejor.

Afrika / Euskadi – África / Euskadi



MOTEMA NA NGAI (2008). Juanmi Gutiérrez.
Espainia. 80 min.

Lingala hizkuntzan (Kongoko Errepublika Demokratikoan hitz egiten dena) “*motema na ngai*” esamoldeak “nire bihotza” esan nahi du hitzez hitz. Hizkera poetikoan bi maitaleren artean xamurtasuna edo maitasuna adierazteko erabiltzen da.. Honela litzateke euskaraz: “Nire bihotzeko hori!” edo “Maite zaitut!”.

La expresión “*motema na ngai*” significa literalmente en lengua *lingala* (la que se habla en la República Democrática del Congo) “mi corazón”. En lenguaje poético se utiliza como expresión de ternura o cariño entre dos amantes. Podría traducirse libremente como “¡Te quiero!” o “¡Corazón mío!”.



AFRIKA



AFRIKA



osteguna / jueves
apirilak 30 abril

• 17:00

Giza eskubideak eta artea
Los derechos humanos y el arte



Y EL CINE MARCHA. UNA HISTORIA DEL CINE AL SERVICIO DE LOS DERECHOS HUMANOS (2008). Manuel Huerga. Espainia. 70 min.

Zinearen historia osoan izan diren filmetako eszena aipagarriak erakutsiz, zazpigarren arteak giza eskubideen alde egin duena azaltzen digu dokumentalak baita aldi berean urteetan zehar pantaila handian gai hau aztertutako modua eta izan duen eboluzioa. Gainera, Nazioarteko Amnistiaren historia aurkezten digu, 1961ean sortu zenetik.




A través de destacadas escenas de películas de toda la historia del cine, el documental explica el papel del séptimo arte en la lucha por los derechos humanos, al mismo tiempo que muestra cómo ha evolucionado su tratamiento en la gran pantalla a lo largo de los años. De forma paralela muestra la historia de Amnistía Internacional desde su fundación en 1961.



• 19:30

BUKAERA / CLAUSURA

Palestina eta Israel arteko gatazka *El conflicto palestino-israelí*



CHECKPOINT ROCK.

CANCIONES DESDE PALESTINA (2009).


Fermin Muguruza, Javier Corcuera. Espainia. 70 min.

Munduak begirada beti jarria duen lekuetako batetik egindako bidaia, bertatik ia ezer jakin ez arren beharbada. Zein da leku mitiko honi ahotsa eta doinua jartzen dion musika? Zeintzuk dira bertako musikari adierazgarrienak? Nola bizi dira? Zer pentsatzen dute bizitzea egokitu zaien halabehar bakarrari buruz? Eta nola egiten diote aurre euren letra eta melodiekin?

Tel Aviveko publizitateko iragarki eta neoietatik Gaza eta Zisjordaniako lurralde okupatueta pobrezia eta etsipeneraino, **Checkpoint Rock** oso musikari desberdinengana hurbiltzen da, herriz herri, eta checkpoint batetik bestera, gatazkan bizi den herri honi buruz dugun ikuspegia aldaraziko duen ibilbidea, alegia.

Un viaje por uno de los lugares sobre el que el mundo tiene puesta siempre su mirada, pero del que quizá lo desconoce casi todo. ¿Cuál es la música que pone voz y melodía a este lugar mítico? ¿Quiénes son sus músicos más representativos y cómo viven? ¿Qué piensan del destino único que les ha tocado vivir y cómo lo enfrentan a través de sus letras y sus melodías?

De los anuncios publicitarios y el neón de Tel Aviv a la pobreza y desesperanza de los territorios ocupados de Gaza y Cisjordania, **Checkpoint Rock** se acerca a músicos muy distintos, de pueblo en pueblo y de checkpoint en checkpoint, un recorrido que cambiará la visión que se tiene de este pueblo en conflicto.



MUSIKA
MÚSICA



• **22:30** Gazteszena (C.C. Egia K.E.)



CHECKPOINT ROCK ZUZENEAN

Zinemaldiari amaiera emanez kontzertu bat eskainiko dute Israelgo hiri desberdinetan baita Zisjordania eta Gazako errefuxiatu esparruetan (**Checkpoint Rock** pelikulan parte hartu dutenak) bizi diren artista palestinar batzuek, **Fermin Muguruza** lagun dutela (baita bere ohiko kolaboratzaileak ere: **Jon Elizalde** tronboia, **Sorkun** ahotsa eta **Zigor Lampre** DJa). Hauek dira parte hartuko duten musikari palestinarrak:

Concierto de clausura del Festival con artistas palestinos que viven en diferentes ciudades israelíes, así como en los campos de refugiados de Cisjordania y Gaza (participantes en la película **Checkpoint Rock**), con la colaboración de **Fermin Muguruza** (acompañado de sus músicos habituales: **Jon Elizalde** al trombón, **Sorkun** a las voces y **Zigor Lampre** como DJ). Los músicos palestinos participantes serán:

Amal Murkus: Musika tradizionaleko abeslaria / Cantante de música tradicional

Naseem Dakwer: Laut arabiar eta biolin jolea / Intérprete de laúd árabe y violín

Habib Al-deek: Oud maisua Nablusko Unibertsitatean / Maestro de oud de la Universidad de Nablus

Suhell Nafar: Abeslaria, Palestinan sortutako aurreneko arabierazko rap taldekoa, DAM / Cantante del primer grupo de rap en árabe de Palestina, DAM

Safaa Arapiyat: Emakumezko aurreneko rap musikari palestinarra / Primera rapera palestina
Kher Fody: Poeta, abeslaria eta perkusio jolea, musika tradizionaleko Walla'at taldean / Poeta, cantante y percussionista del grupo de música tradicional Walla'at

Ayman PR: Gazako Palestinian Rapperz rap taldeko abeslaria / Cantante del grupo de rap Palestinian Rapperz, de Gaza



osteguna / jueves
apirilak 30 abril

BUKAERA FESTA / FIESTA DE CLAUSURA **apirilak 30 abril**

Victoria Eugenia Antzokia

REVOLUTIONARY BROTHERS




Iker eta Unai anai donostiarrek hainbat estilo, jamaikar klasikoak eta modernoak, esaterako *ska*, *rocksteady*, *roots*, *ragga* nahasten dituzte *soul*, *jazz*, *funk*, *hip-hop*... ukituekin. Horren emaitza hauxe da, euren *reggae sound system* berezia.

Revolutionary Brothers bat datoz eszenan potentzia handiko soinu zaindua, betiere mezu positibo eta errebindikaziozkoa igortzen diguna eskaintzeko, euren sormenaren, platoen arteko mugimenduaren, efektu makinen, *sampler*ren eta euren produkzioen bitartez.

Los hermanos donostiarras Iker y Unai mezclan estilos jamaicanos clásicos y modernos como *ska*, *rocksteady*, *roots*, *ragga*, con pinceladas de *soul*, *jazz*, *funk*, *hip-hop*... dando lugar a su particular *reggae sound system*.

Revolutionary Brothers se compenetrán en escena para ofrecer un sonido potente y cuidado, con un mensaje positivo y reivindicativo a través de su creatividad, el movimiento entre sus platos, máquinas de efectos, *samplers* y producciones propias.



ERAKUSKETAK
EXPOSICIONES



apirilak 16-30 abril

**Udal Liburutegiko Ekitaldi Aretoa
Sala de Actividades de la Biblioteca Municipal
(San Jerónimo)**

Ordutegia / Horario:

11:00 – 14:00 / 16:30 – 20:30

**HEMEN ETA ORAIN
AQUÍ Y AHORA**

Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiak hamabost argazkilariri egin die eskaria, euren iritziz, gure gizartean bidegabekeriaren, zentzugabekeriaren, desberdintasunaren... erakusgarri diren hainbat egoera iruditan jasotzeko.

El Festival de Cine y Derechos Humanos de San Sebastián ha solicitado a quince profesionales de la fotografía que propongan una imagen que, a su juicio, incida en alguna de las múltiples situaciones que en nuestra sociedad son ejemplo de injusticia, de sinrazón, de desigualdad...

Argazkilarien zerrenda / Relación de fotógrafos/as:
Gema Arrugaeta, Isabel Azkarate, Laura 10 M, Justy García, Ander Gillenea, Javier Hernández, Juan Herrero, Iñigo Ibáñez, Nagore Iraola, José Mari López, Josune Martínez de Albeniz, Sara Santos, Jesús Uriarte, José Usoz, Amaia Zabalo.



apirilak 20 abril – maiatzak 23 mayo



**Udal Liburutegi Nagusia / Biblioteca Central
(Alderdi Eder)**

Ordutegia / Horario:

astelehenetik ostiralera / de lunes a viernes:
10:00 – 20:30

larunbatak / sábados: 10:00 – 14:00 / 16:30 – 20:00

KABUM MIX! BRASIL – SAN SEBASTIÁN

Brasilgo Rio de Janeiro, Salvador eta Recife faveletako nerabeek eta Donostiako Área Diseinu Eskolako ikasleek egindako kartelen arteko kontrastea. Gizartean eragina duten gaiei buruzko ikusmolde desberdinak: haurdunaldi goiztiarra, ura izateko eskubidea edo giza eskubideak orokorrean. Brasilen Felipe Taborda eta Alain Le Quernec diseinatzaile grafiko ezagunek koordinatutako tailerrak Donostiako gazteen proposamen artistikoen osagarri izango dira "senidetze grafiko batean", giza eskubideei buruzko hausnarketaren bitartez.

Contraste de carteles realizados por adolescentes de las favelas brasileñas de Río de Janeiro, Salvador de Bahía y Recife y los diseñados por el alumnado de la donostiarra Escuela de Diseño Área. Diferentes percepciones de temas de calado social como el embarazo precoz, el derecho al agua o los derechos humanos en general. Los talleres brasileños, coordinados por los reconocidos diseñadores gráficos Felipe Taborda y Alain Le Quernec, se complementan con las propuestas artísticas de la juventud de San Sebastián, en un "hermanamiento gráfico" a través de la reflexión sobre los derechos humanos.





apirilak 22-30 abril

**Zinemaldiaren Informazio Bulegoa
Oficina de Información del Festival
Victoria Eugenia Antzokia
(Plaza Okendo)**

Ordutegia / Horario:

11:00 – 14:00 / 16:00 – 20:00

DEFENDATZAILEAK / DEFENSORES
Sofía Moro



Nazioarteko Amnistiak, Sofía Moro argazkilari gailenaren lankidetzarekin, giza eskubideen aurpegiak erakutsiko dizkigu. Formatu handiko erretratuen bidez, erakusketa honek mundu osoko 30 pertsonari egiten die omenaldi, giza eskubideak defendatzeagatik nabarmendu izan direnei. Aurpegi bakoitzarekin batera defendatzailearen giza ezaugarriak aurkezten dira laburki, pertsonen duintasunen alde haietako bakoitzak egindako lana eta hartutako konpromisoa jendeari ezagutzera emateko.

Amnistía Internacional, con la colaboración de la prestigiosa fotógrafa Sofía Moro, nos presenta los rostros de los derechos humanos. A través de retratos de gran formato, la muestra es un reconocimiento a 30 personas de todo el mundo destacadas por su defensa de los derechos humanos. Cada rostro se completa con un breve perfil humano del defensor o defensora, que pretende acercar al público la esencia de su historia de lucha y su compromiso con la dignidad de las personas.



FNAC

Ordutegia / Horario:


astelehenetik larunbatera / de lunes a sábado:
10:00 – 22:00



60 ANIVERSARIO DE LA DECLARACIÓN UNIVERSAL DE LOS DERECHOS HUMANOS

1948ko abenduaren 10ean, Nazio Batuen Batzar Nagusiak Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala onetsi eta aldarrikatu zuen. Urteurren hau dela eta, erakusketa honek errepaso egiten du Deklarazioan bildutako 30. artikuluetatik, hainbat argazkilarik mundu osoan zehar –Hego Afrika, Frantzia, Irak, Egipto, Indonesia, Brasil, Estatu Batuak, Kenya...– egindako 30 argazkiren bitartez.

El 10 de diciembre de 1948 la Asamblea General de las Naciones Unidas aprobó y proclamó la Declaración Universal de los Derechos Humanos. Con motivo del 60º aniversario, esta exposición repasa los 30 artículos de la Declaración a través de 30 fotografías realizadas por diferentes fotógrafos a lo largo del mundo: Sudáfrica, Francia, Iraq, Egipto, Indonesia, Brasil, Estados Unido, Kenia...



MAHAI – INGURUA
MESA REDONDA

apirilak 29 abril



**Kluba Aretoa / Sala Club
(Victoria Eugenia Antzokia)**

• 18:00

EL CINE COMO ESCUDO

Lydia Cacho Fundazioak sustatutako mahai-inguru honetan giza eskubideen urraketen, boterearen ustelkeriaren edota edozein motako egoera bidegabeen aurrean salaketa eta kontzientziazio soziala bultzatzeko zineak betetzen duen zereaginean sakondu nahi da.

En esta mesa redonda, promovida por la Fundación Lydia Cacho, se quiere profundizar en la eficacia del cine como medio de denuncia y de concienciación social frente a las violaciones de los derechos humanos, la corrupción del poder o situaciones injustas de cualquier tipo.

Antolatzaileak / Organizadores



SAN SEBASTIÁN
DONOSTIA 2018



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



Gazteria eta Giza Eskubideak Atala
Sección de Juventud y Derechos Humanos

Babesleak / Patrocinadores



VICT 1988

Con el apoyo financiero del programa VICT
Comisión Europea - Dirección General Justicia, Libertad y Seguridad

Parte-hartzaileak / Participantes



LA ASOCIACIÓN INTERNACIONAL DE
EDUCADORES PARA LA PAZ



Laguntzaileak / Colaboradores



www.cineyderechoshumanos.com